

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	IBILGAILUAREN BALAZTEN SISTEMA MEKANIKO ETA HIDRAULIKOAREN MANTENTZE-LANAK	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF1174		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen elektromekanika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailu automobilen indarra transmititzeko sistemen eta errodaje-trenen mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Transmisio- eta balazta-sistemak.	Iraupena	230
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ibilgailuaren transmisio-sistemaren mantentze-lanak.	Iraupena	90
	Ibilgailuaren balazten sistema elektriko eta elektronikoaren mantentze-lanak.		50
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa ibilgailuen mantentze-lanetan (Zeharkakoa).		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0131_2: TRASMISIO- ETA BALAZTA-SISTEMEN MANTENTZE-LANAK EGITEA gaitasun-ataleko LB1, LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin, balazten sistema mekanikoari eta hidraulikoari lotutako alderdiei dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ibilgailuaren balazta-sistema mekanikoaren elementuak eta osagaiak diagnostikatzea, konpontzea eta ondo dauden begiratzea, eta haien higadurak eta konponketa- eta ordezkapen-prozedurak aztertzea.

E1.1 Balazta-sistemaren elementu guztiak desmuntatzea eta muntatzea, eta haien funtzioak eta higadurak aztertzea.

E1.2 Disko-balaztaren sistemako elementuak identifikatzea, eta haien higadura eta ordezkapen-sistema aztertzea, behar izanez gero.

- Diskoaren artezketa eta kopadura begiratzea.
- Pastillek higadura-berdintasuna dutela egiaztatzea.

E1.3 Danbor-balaztaren sistemako elementuak identifikatzea, eta haien higadura eta ordezkapen-sistema aztertzea, behar izanez gero.

- Danborraren obalaketa begiratzea.
- Zapaten hurbilketa automatikoaren sistema aztertzea, eta esku-balazta eraginkorra den begiratzea.
- Danborraren higadura-tolerantziak begiratzea.
- Zapaten higadura begiratzea.

E1.4 Balaztate-doigailua aztertzea, eta ibilgailuan zailtasunik baden begiratzea.

- Doigailuaren garbiketa eta doikuntza.

E1.5 Serbobalaztaren egoera eta funtzionamendua begiratzea, kontuan hartuz atzeraezeko balbulak ondo funtzionatzen duela eta ez dagoela ihesik huts-zirkuituan.

E1.6 Huts-ponpak ondo funtzionatzen duen begiratzea, eta haren palek higadurarik baduten aztertzea.

A2: Ibilgailuaren balazta-sistema hidraulikoaren elementuak eta osagaiak diagnostikatzea, konpontzea eta ondo dauden begiratzea, eta haien higadurak eta konponketa- eta ordezkapen-prozedurak aztertzea.

E1.2.1 Ibilgailuaren balaztate-sistemako elementu hidraulikoak identifikatzea, eta haien higadura eta ordezkapen-sistema aztertzea, behar izanez gero.

E1.2.2 Balazten sistema hidraulikoaren estankotasuna aztertzea, ihesik ez dagoela egiaztatzea, eta balazta-likidoaren degradazio-indizea begiratzea.

- Balazta-likido motak ezagutzea.
- Zirkuituko hezetasun-indizea aztertzea, tresneria espezifikorekin.
- Balazten zirkuitu hidraulikoaren purgatze-teknikak.

E1.2.3 Tenkagailuen egoera, lasaierak eta pintzen eta ponpatxoan ibilbideak aztertzea.

E1.2.4 Doigailuaren edo atzeko balazten mugatzailearen tara espezifikoa egitea, manometro espezifikoak erabiliz.

E1.2.5 Balazta-ponparen egoera eta funtzionamendua begiratzea, eta egiaztatzea ez dagoela ihesik eta/edo buxadurarik.

E1.2.6 Egiaztatzea frenometroko ardatz bakoitzeko gurrpilei indar bera aplikatzen zaiela, eta bi ardatzen arteko indar-diferentzia nabarmentzea.

A3: Ibilgailu industrial, kamioi edo autobus baten balaztatze-sistemako elementuak eta osagaiak diagnostikatzea, begiratzea eta konpontzea, higadura-indizea aztertzea, eta elementuak ordezkatzeko, behar izanez gero.

EI3.1 Ibilgailu astun, kamioi edo autobus baten balazten aire-zirkuituaren estankotasuna begiratzea, eta egiaztatzea ez dagoela urik zirkuituan bertan eta galdaretan.

EI3.2 Aire-zirkuituko balbulek ondo funtzionatzen duten begiratzea, eta egiaztatzea garbiak daudela eta behar bezala betetzen dutela tara.

EI3.3 Aire-zirkuituaren lan-presioak begiratzea, tresneria eta manometro egokiak erabiliz eta fabrikatzailearen argibideei jarraituz.

EI3.4 Balaztatze-birikak eta zapatei eragiteko bielak begiratzea.

EI3.5 Balazta-zirkuituko airea sortzen duen konpresoreak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzea, sortzen duen presioa neurtuz eta fabrikatzailearen eskuliburukoarekin konparatuz.

EI3.6 Zirkuituko iragazki lehortzaileak begiratzea, eta, behar izanez gero, ordezkatzeko.

Edukiak

1. Balazta-sistemaren elementu mekanikoak.

- Balazta-diskoak.
- Balazta-pastillak.
- Balazta-danborrak.
- Balazta-zapatak.
- Huts-ponpa.
- Serbobalazta.
- Esku-balaztaren sistema.

2. Balazta-sistemaren elementu hidraulikoak.

- Balazta-ponpa.
- Balaztatze-doigailua.
- Balazta-ponpatxoak.
- Balazta-pintzak.
- Balaztatze-mugatzaila.
- Balaztatze-banatzailak.
- Balazta-tenkagailuak.
- Balaztaren kanalizazio zurrunkak.
- Balazta-likidoaren tanga.
- Balazta-likidoa.
- Purgatze-ekipoa.
- Huts-egiaztigailua.

3. Ibilgailu industrial baten balaztatze-sistemaren mantentze-lanak.

- Ibilgailu industrialen balazta-sistemaren eboluzioa.
- Funtzionamendu-printzipioa. Turismoen balazta-sistema konbentzionala duten elementu komunak.
- Elementuen funtzionamendua.
- Aire-zirkuituak. Matxuren diagnostikoa.
- Aire-zirkuituan ihesik baden begiratzea.

4. Frenometroko proba

- Frenometroa eta haren ezaugarriak.
- Probak eta diagnostikoa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza--atal hau egiteko gainditua izan behar du UF1173: Ibilgailuaren transmisio-sistemaren mantentze-lanak.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailu automobilen indarra transmititzeko sistemen eta errodaje-trenen mantentze-lanak